

## BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 5630

*EBAZPENA, 2012ko azaroaren 26koa, Hezkuntzako sailburuordearena. Honen bidez, 2012-2013 ikasturterako diru-laguntzak ematen zaizkie zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako eskolen titular diren tokiko korporazioei.*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko uztailaren 17ko Aginduak egindako deialdian ezarritakoari jarraituz, eta izapidetu diren espedienteak aztertu ondoren, honako hau.

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– 1.– Haur Eskolen titularrak diren udalei ematea I. eranskinean jasotako diru-laguntzak, zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako udal eskolak mantentzeko kostuak finantzatzeko. Diru-laguntza hiru epetan ordainduko da. Lehen ordainketa lehen urtekoari dagokiona (2012ko irailetik abendura) izango da, eta 2012ko uztailaren 17ko Aginduaren 14. artikuluan aipatzen den hitzarmena izenpetu ondoren ordainduko da. Bigarren ordainketa, bigarren urtekoaren % 50 dagokiona, apirilean ordainduko da. Hirugarren zatia, bigarren urtekoaren beste % 50ari dagokiona, diru-laguntzaren onuradunak 2012-2013 ikasturteko gastu eta sarreraren frogagiriak, udalaren idazkariak edo kontu-hartzaileak ziurtatu ondoren, aurkeztu beharko ditu, kobratzeko.

2.– Ebazpen honen I. eranskinean aipatutako udalei honako hau jakinaraztea: ebazpena indarrean jartzen den egunetik hilabeteko epean izenpetuko dituztela hitzarmenak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta udal horiek. Izan ere, hitzarmenak zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako udal eskolak finkatzeko izango dira.

2. artikulua.– II. eranskinean agertzen den udala bazter uztea, zioa aipatuaz.

3. artikulua.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari. Horretarako epea hilabetekoa izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 26a.

Hezkuntzako sailburuordea,  
M.<sup>a</sup> ANTONIA OZCARIZ RUBIO.

2012ko abenduaren 17a, astelehena

I. ERANSKINA  
UDALAK

	HIRUGARRENAREN KODEA	UDALA	LEHENGO ORDAINKETA	BIGARREN ORDAINKETA	HIRUGARREN ORDAINKETA	GUZTIRA
<b>ARABA</b>	1.0P0106300G.00	Gaubea	6.201,84	8.155,56	8.155,56	22.512,96
	1.0P106800F.00	Vitoria-Gasteiz	487.182,44	487.573,18	487.573,18	1.462.328,80
			<b>493.384,28</b>	<b>495.728,74</b>	<b>495.728,74</b>	<b>1.484.841,76</b>
<b>BIZKAIA</b>	1.0P4801700H.00	Barakaldo	101.564,75	101.564,75	101.564,75	304.694,25
	1.0P4809100C.00	Portugalete	96.353,82	96.874,81	96.874,81	290.103,44
			<b>197.918,57</b>	<b>198.439,56</b>	<b>198.439,56</b>	<b>594.797,69</b>
<b>GIPUZKOA</b>	1.0P2001000E.01	Andoain	79.070,81	95.221,58	95.221,58	269.513,97
	1.0P2001400G.00	Aretxabaleta	97.782,70	98.433,94	98.433,94	294.650,58
	1.0P2005900B.00	Arrasate	165.787,15	179.593,45	179.593,45	524.974,05
	1.0P2003500B.00	Eskoriatza	71.702,97	73.526,44	73.526,44	218.755,85
	1.0P2004900C.00	Irun	79.641,43	79.771,68	79.771,68	239.184,79
	1.0P2006800C.00	Ojartzun	175.786,21	183.340,59	183.340,59	542.467,39
	1.0P2008200D.00	Ordizia	123.217,50	144.187,46	144.187,46	411.592,42
	1.0P2006900A.00	Pasaia	38.120,49	40.985,95	40.985,95	120.092,39
	1.0P2007800B.00	Usurbil	100.709,36	104.226,06	104.226,06	309.161,48
			<b>931.818,62</b>	<b>999.287,15</b>	<b>999.287,15</b>	<b>2.930.392,92</b>
<b>EAE</b>			<b>1.623.121,47</b>	<b>1.693.455,45</b>	<b>1.693.455,45</b>	<b>5.010.032,37</b>

**II. ERANSKINA**  
**BAZTERTUTAKO UDALAK**

Gipuzkoa

Udala	Zioa
Donostia	Deialdiaren 9.3 artikuluan ezarritakoa ez betetzea